

J.M. LEKUONA, HITZ-AURRE EGILE: “IRAKURLE IDEALAREN” IDAZKERA ZEHATZA

Jon CASENAVE

Juan Mari Lekuona ezagutua da poeta¹ eta euskal literaturaren historialari² bezala. Liturgia itzultzailea eta herri literaturaren biltzaile eta aztertzailea, adibidez, ez dira asko aipatzen, are gutiago oraindik egunkarigilea eta hitz-aurre egilea. Itzulpena eta kantu bilketa bigarren mailako idazlanak bezala ekarriak baldin badira, zer erran hitz-aurre eta gisa bereko aurkezpenentzat? Alabainan, zer ote da idazlan mota hori? Egiazko saiakera ala lagunen arteko idazki konplaxenta? Bistan dena, bi muga horien artean bada arteka nasaia hitz-aurre ezberdinen sailkatzeko eta bereizteko.

Juan-Mari Lekuonaren kasuan badugu ezaugarri interesgarri bat eztabaيدا horren trenkatzeko : 1997-an, Deustoko Unibertsitatean argitaratua izan den “*Ikaskuntzak euskal literaturaz*” liburuan, erantzun bat aurki daiteke. J.M. Lekuonak, bere irakaskuntza denboran egin zituen artikulua bilduak dira liburu gotor hortan eta, beste saiakera ainitzen artean, bere idazle lagunei eskaini zizkien hitz-aurre zenbait atxematen dira. Lankide eta ikasle ohi batzuek osatu zuten bilduma hura bainan, autorearen baimenarekin. Beraz, ez da dudarik literaturari buruzko saiakera bezala hartzen zituela lan horietatik gehienak.

J.M. Lekuona, “idazle eta laguna”-ren nortasunaren berri emaiten digutelako, idazlan horiek erabiliko ditugu beren baitan dituzten ezaugarri nagusien

¹ J.M. Lekuona, *Mindura gaur* (1966), *Muga beroak* (1973), *Ilargiaren eskolan* (1979), *Mimodramak eta ikonoak* (1990) in *Ibilaldia/ Itinerario* (1950-1990), arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

² J.M. Lekuona, *Ahozko euskal literatura*, arg. Erein, 1982.

argitzeko gisa. Gure ustez, bi ondorio atera daitezke hitz-aurre horietatik : alde batetik, irakurgai berrien ulertzeko eta argitzeko zuen gaitasuna eta, bestaldetik, haren irakurketa “sinpatikoa”³.

1. JUAN MARI LEKUONAK EGIN HITZ-AURREEN ZERRENDIA

1970-tik hona egin argitaratu diren liburuetan, hitz-aurre egile izen batzu behin eta berriro ageri dira: K. Mitxelena, L. Villasante, P. Lafitte, J. Azurmendi, besteak beste. Nolabait errateko, garaiko “autoritate” intelektuala eta bitartekari kulturalak dira. Nahiz ez den idazle horien izena bezainbat agertzen, J.M. Lekuonaren izena ere sar genezake zerrendan. 1977-an, J.M. Torrealdai soziologoak garrantzi handiko liburu bat argitaratu zuen euskarazko liburugintza eta euskal idazleei buruz : *Euskal idazleak gaur*. Liburu hartan, euskal kulturaren munduan egindako inkesta baten ondotik, orduko “hamar luma” preziatuenak aurkeztu eta sailkatu zituen eta J.M. Lekuona sailkapenean sartu zuen. Mundu mediatikoaren burrunbatik urrun egoten zen arren, J.M. Lekuona autoritate bat zen garai hartako euskal kulturaren. Beraz, ez da harritzeko haren izena aurkiturik orduko liburu zenbaiten atarian, aintzinsolas egile bezala. G. Aulestiak, *Ibilaldia*⁴ liburuarentzat egin zuen zerrendan fidaturik, zortzi erreferentzia ematen ahal ditugu :

- “Atari gisa”, in Manuel Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, vol.1, arg. Auspoa, 1974.
- “Sarrera modura” in, Bitoriano Gandiaga, *Uda batez Madrilan*, arg. Aranzazu, 1977.
- “Sarrera gisa”, in Luis M. Mujika, *Zortziko hautsiak*, arg. Ed. Vascas, 1978.
- “Hitzaurrea”, in Paulo Iztueta, *Ibiltari*, arg. Elkar, 1979.
- “Sintesis unean landurik poemak” in Joxe-Austin Arrieta, *Bertso paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.
- “Elorri, argitaraldi berrian” in Bitoriano Gandiaga, *Elorri*, arg. Arantzazu, 1989.
- “Hitzaurrea” in Gorka Aulestia, *Bertsolarismo*, arg. Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.

³ Hemen hitza hartzen dugu bere oinarrizko zentzuan : jendeen arteko elkar ulertze eta elkarkidetzat barna bezain sendoa.

⁴ J.M. Lekuona, *Ibilaldia/ Itinerario* (1950-1990), arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

- “Hezurdura laburki aurkeztuz” in Lourdes Otaegi, *Lizardiren poetika*, arg. Erein, 1994.

Zer dute elkar ikusteko zortzi hitz-aurre horiek? J.M. Lekuonak hurbileko lagun eta adixkideentzat eginak dituela erran daiteke. Batentzat salbu (*Elorri*, B. Gandiaga), lehen argitalpenarentzat idatziak ditu aintzin-solasak. Bainan, horietan barnago joan baino lehen, idazlan mota hortaz eman daitezkeen ohar orokor batzu aipatu behar ditugu.

2. TESTU-MOTA BATEN ILUN-ARGIAK

Definizio baten bila

XX-garren mende ondarreko kritikarentzat, obra baten ingurumen guzia ikerketa gai bilakatu da. “Paratestu” (batzuentzat: “Peritestu”) eta “Epitestu” deitzen dituzte ingurune materiala eta inguru-giro soziala. G. Genette⁵ bezalako ikerlariak ari izan dira haien balioa eta funtzioa aztertzen⁶.

Hitz-aurrea “paratestuan” sartzen da. Hori erranik, bi kasu bereizi behar dira oraindik : lehena, autoreak berak egindako hitzaurrea edo, bigarrena, beste norbaitek harentzat egina. Hemen, aipatuko ditugun idazlanak, bigarren kasuan sartzen dira, hots, J.M. Lekuonak besteentzat egin dituen hitz-aurreak.

Hitz-aurre baten funtzioak

Bigarren kasu hortan sartzen den aintzin-solasari, G. Genette-k bi funtzio nagusi ematen dizkio : alde batetik, sorkuntzaren kontestuari eta idazleari buruz irakurleak behar dituen xehetasunak ematea ; bestaldetik, funtzio informatibo horrez gain, gomendatzearena. Gomendatzerakoan eta argitzera-koan, ez da dudarik gisa batez edo bestez, aintzin-solas egileak nahi duela

⁵ Gérard Genette, *Seuils (Atariak)*, arg. Editions du Seuil, 1987.

⁶ Hona zer sarrarazten duen “paratestuan” : autorearen izen-deiturak ; izenburuak eta azpi/arteko/etb. izenburuak ; dedikatorioak ; aipamen epigrafikoak ; aintzin-solas, solas-ondo, etb ; notak eta oharrak.

Hona zer ezartzen duen “epitestuan” : Epitestu publikoa : bitartekaritza mota ezberdinak ; elkarrizketak ; kolokioak eta mintzaldiak. Epitestu pribatua : gutunak (paperezkoak eta elektronikokoak) ; aitormen mota ezberdinak, egunkari pertsonala, etab.

lehen lehenik irakurlea testura erakarri. Bide batez, ematen dizkion xehetasunen bitartez, nahi dio irakurketa apailatu, bainan, denbora berean, ez da ukatzen ahal bideratzen diola, berak nabarmentzen duen zentzuaren arabera.

Askotan, J.M. Lekuona bezalako irakasle eta unibertsitario bati, aspaldi-ko edo bederen hildako autore batentzat egitea eskatzen zaio. Bainan, haren kasuan, kontura gaitezke autore garaikideentzat egina duela. Idazle zenduak aurkezten ari izana da ere, bainan bakanetan eta, horrelako kasuetan, solasondoaren bidea aukeratu zuen, menturaz, interferentzia gutiago sortzeko irakurlea eta testuaren artean, hala nola Satarkaren kasuan (“Satarkaren Intza begietan“, in *Ezti tantak*⁷).

Idazlan arriskutsua

Hitz-aurre egileak bere bidean aurkitzen duen lehen oztopoa, dudarik gabe, irakurlearengandik heldu da. Alabainan, anitzetan irakurlea –nork ez du horrelakorik egin?– ez da atarian gelditzen eskatua zaion bezala eta, testuan barrena abiatzen da aintzin-solasaren gainetik pasatuz. “Atariko autoritatearen“ iritziaren beharrik ez du ikusten eta, nahiago du testua berehala dastatu filtrorik gabe. Beraz, askotan serioski egindako lan zehatz hori debaldetan egina da.

Bainan, lehen arrisku horrez gain, bigarren bat bada oraindik aintzin-solas egilearentzat. Guziz zaila da jakitea zer gisaz edo noren izenean idazten duen eta norentzat ari den. Beraz, bi galde nagusi aurkitzen ditu bere bidean :

Norentzat idatzi behar du aintzin-solasa? Irakurlearentzat dudarik ez. Bainan, denbora berean, hitz-aurrea eskatu dionarentzat ere bai, eta oroitu behar da J.M. Lekuonak adixkide edo lagun hurbilentzat idatzi zituela lan horiek. Lehenik, erran gabe doa, ez diola adixkideari “atari“ konplaxentarik eskaini nahi, horrelakorik ez baita on ez emailearentzat ez eta ere hartzailearentzat. Jakinez zehaztasun intelektuala zorrozki lantzen zuela beretzat, J.M. Lekuonak ez zuen horrelakorik egiten ahal eta, ez dugu pentsatzen egin zuenik.

Bigarrenik, kondutan hartu behar zuen eskatzaileak “nori“ eskatu zion aintzin-solasa. Adixkideari? Poetari? Poesia garaikidearen aztertzaile trebeari? Eskaera ez da neutroa eta, erantzunaren arabera, idazlan ezberdinak idatz litezke. Bainan, pentsa daiteke ere “hiruei“ batera eskatu ziela. Zer nahi gisaz,

⁷ Satarka, *Ezti tantak*, (K. Sagarzazu-k paratua), arg. Elkar, 1996.

hortan berean bazen J.M. Lekuonarentzat "postura" eta mintza-lekuari buruz arazo bat.

Orain, ikus dezagun lehen galdera hontatik datorren bigarren galdera:

Zein da mintzatu beharra den Lekuona hura? "Zer" gisaz mintzo da? Sortzaile eta poeta gisa mintzatu izan balitz beste sortzaile lagun baten lana gomendatzeko, maila bereko partaide gisa eta autorearekin sinpatia osoan beharko zuen idatzi, harekin bat eginez sortzaileen elkarkidetzan nolabait errateko. Aldiz, Lekuona irakasle, kritikari eta poesiaren aztertzaile bezala idatzi izan balu, hots "autoritate" baten posturan jarri izan balitz, gainetik bezala idatziko zuen, irakurlea eta poeta distantzia berdinean atxikiz. Gure ustez, idatzi dituen hitz-aurreetan, J.M. lekuonak ez du ez bat ez bestea hautatzen, bainan bien arteko zerbait.

Saiakera mota hibrido bat

Ez da agertzen ez "autoritate" bezala, ez eta ere poeta edo lankide bezala. Bi mintza-gune horien arteko toki batetik mintzo da. Poesiaren espezialista gisa, aurkezpen edo saiakera guziz tekniko eskaintzen du beherago ikusiko dugun bezala. Bainan, denbora berean, ez du testuaren "mamia" gehiegi barnatzen eta interpretatzen, haren "misterioa" irakurleari bere osotasunean utzi nahi izan bazion bezala. Horren lortzeko eta berritasunaren erakargarritasuna ez gal arazteko obrari, teknikariaren deskribapen zehatzari, "lehen irakurle"-aren freskotasuna eta zentzuaren "interpretatze" edo "mugatze" eza gehitzen dio. Hots, saiakera mota hibrido bat eskaintzen die irakurleari eta eskatzaileari.

Hortaz ohartzeko aski da ikustea J.A. Arrietaren *Bertso-paper printzatuak*⁸ liburuarentzat idatzi duen aurkezpena. Azterketa literario bat antolatzen du, hastetik buru, kapituluka egituratua eta demostrazio baten eran erakikia. Teknikoa izanik, kritika literarioak moldatu duen hiztegi berezituaz (prosodiaz, metrikaz, hizkuntza figuratiboaz, etb.) erabiltzen du. Eta alde hortarrik, pentsa daiteke poxi bat idor egiten ahal zaiola irakurleari, unibertsitarioegia menturaz. Bainan, azterketaren idortasuna ezitzen du harrera berezi baten bidez, sortzailearekin "sinpatian" balego bezala :

"Uste bait dugu uste, gure aipamen hau lagungarri gerta dakiokela, ez noski guk diogunaren balio objektiboagatik bakarrik, baizik eta ofizioko bat mintzatzeak duen alderdi subjektiboagatik ere bai ; eta ez gutiago noski".

⁸ J.A. Arrieta, *Bertso-paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.

Garbi dago lan guziz zaila zaiola J.M. Lekuonari, preseski sarbide kritikoa aipatu bi jarreraren artean nahasia bezala ikusten duelako. Beraz, arriskua onartzen du baitaki poesia garaikidearen harrera urria bezain neketsua dela :

Gure artean jaiotako poema-liburuek badute arriskurik euri-zaparradaren antzera gera daitezen, irakurlegoaren barne emankorretan barrendu gabe. (...) Ingurugiro honetan plazaratzen digu Joxe-Austin Arrietak bere bigarren poema-liburua, Bertso-paper printzatuak deritzana. Eta aspaldiko ezagun eta lagunaren idazlanari aipatu “zaparradarena” gerta ez dakion, amore eman diot poemon aurkezpena egin beharrari.

Halarik ere, eginbidetik hara, “bidaide” izateko parada ikusten dio hitz-aurre idazteari :

Eta aitortu beharra daukagu, pozik gaudela aurkezpen-lan hau egitera behartu izanaz, poemagintzak berea baduelako, eta gure poesiari buruzko gogoeta franko egiteko modua eskaini digulako, besteak beste.

3. POESIA GARAİKIDEAREN IRAKURLE “ESPERIMENTALA”

Hastapenean erraten genuen, poesiarentzat ari izana zela batez ere hitz-aurre egiten J.M. Lekuona. Hiru idazlan (Lizardi-ri buruzko ikerketa bat⁹, Bertsolaritzaz ari den azterketa bat¹⁰ eta bertsolari baten autobiografia¹¹) kentzen badira, beste gaineratikoak sorkuntza lanak dira, poeta garaikide batzuek eginak (Arrieta, Gandiaga, Iztueta, Mujika). Beraz, J.M. Lekuona poesia garaikidearen aztertzaile trebea izan baldin bada, aurkezle eta defenditzaile neka-gaitza izan da ere. Hemen ez dugu batere haren lan kritikoa ikertu nahi. Beraz, doi doa erranen dugu zer aurkezpen mota egin duen (edukian sartu gabe) hitz-aurre egile gisa, gorago definitu ditugu bi jarreraren bitartez.

a. Irakurketa teknikoa

Irakurle “berezitua”

J.M. Lekuonak egiten duen lana ez da irakurle soilarena. Bainan, ber denboran, ez du bere irakurketa pertsonala aintzinean eman nahi. Orduan, bi ohar

⁹ L. Otaegi, *Lizardiren poetika*, arg. Erein, 1994.

¹⁰ G. Aulestia, *Bertsolarismo*, arg. Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.

¹¹ M. Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, vol.1, arg. Auspoa, 1974.

mota egiten ditu nagusiki. Alde batetik, historia literarioaren sarbidetik eman daitezkeen xehetasunak aipatzen ditu. Bestaldetik, ezaugarri teknikoak ematen ditu. Horren erakusteko, bi adibide emanen ditugu.

Ikus dezagun, gainez gain, *Bertso-paper printzatuak*¹², J. A. Arrietaren liburuarentzat idatzi duen aurkezpena. Autorearen aintzineko bi idazlan (poema liburu bat¹³ eta itzulpen bat¹⁴) aipatu ondoan, hizkuntzari buruzko ohar teknikoak egiten ditu xeheki : lehenik, lexikoaren erabilera poetikoaz azterketa bat ("Aztergaiak : zer eta noraino"; "irakurkera literalaz"); bigarrenik, prosodiari buruzko ikekerta sakona ("Estrofagintzan ahaleginetan", "Egiturak eta estrukturak"); hirugarrenik, intertestualitatearen baliatzeko moldeak ("Intra-literaturatik"); laugarrenik, azken kapitulu batean ("Azkena"), J.A. Arrieta orduko euskal literaturari egiten dion ekarpenaren neurtzera saiatzzen da.

"Eta nolerebaiteko azterketa metodo bati atxeki behar eta, bide honi ekin diogu : gure susmo zabal horiek arakatzeari, gaiak zehatzago markatuz, zertxobait kuantifikatuz, dauden-daudenean konstatatuz." (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

Hots, testutik egin ahala hurbil egonez eta egiturari kasu emanez, poesiarren baliabideak bilatzen ditu, batez ere sinkronian bainan, diakronian ere behar orduan.

Eta aztertu behar bagenu B. Gandiagaren *Uda batez Madrilen* liburuarentzat egiten duen aurkezpena gauza bera azpimarra genezake. Horra kapitulu zenbaiten izenburuak: "Berezko formen tratamendua"; "Poema horien balore formalaz"; "plastizitatea"; "literatur forma zabalagoak". Garbi dago Gandiagaren poemagintza ulert arazteko indar handia egiten duela eta, haren lortzeko, ordu arte erabiliak ez ziren "konzepto" kritikoak sararazten dituela, hala nola "ezpazioa".

J.A. Arrieta edo B. Gandiagaren izariko garaikideak aipatzerakoan, eta gehiago dena argitaratuak ez diren testuentzat, oker ibiltzeko arriskua bada beti. Ez dira XX-garren mendeko poeta hermetikoenak bainan, obra konplexua egin dute eta beren trinkotasunean, helgaitzak gelditzen dira. Obra horien baitan sartzeko ateak eman nahiz dabila J.M. Lekuona. Beraz, itsu-mandoka ari da, berritasuna usnatzen, eta ezagunetik abiatuz berriaren argitzen aritzen da, testuaren baitatik :

¹² J.A. Arrieta, *Bertso paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.

¹³ J.A. Arrieta, *Arrotzarena / Neurtitz neurgabeak*, arg. GAK, 1983.

¹⁴ J.A. Arrieta, *Hadrianoren oroitzapenak*, arg. Elkar, 1985.

Gandiagaren espresabide poetikoaz jabetuko bagara, ahantzezina da arte plastikoek dagioten eragina, batez ere egilearen balio formalaz hitzegiterakoan. Eragin honek esplikatu diezaguke tematikaren norabidea, sentsibilitatearen alorra eta minberatasuna, kezka eta desiren sorburua, eragin eta zentzu espáciala, hitzen formetan eta estrofaren berregituratzetan. (*Uda batez Madrilen*, Hitz-aurrea.)

Orainaren... historiolaria

Berritasuna bereizi ondoan, haren ulertzeko koadro bat eman nahi du. Orduan, beharrezkoa delarik, ikuspegi diakronikoa sarrarazten du bere aztertze lanean. Atzerapen historiografikoaren bitartez, obraren tokia finkatzen du euskal literaturaren jarraipen historikoan :

“Dena dela, Gandiaga hemen Europako joera berrietara lerratzen da, poesia sozialekoak baino ardura nabariagoz. Lizardi eta Lauaxetaren haritik, Miranderen kideko. Eta hau da benetan preziagarri *Elorri*-ren modelakuntzan: teknika landua, originala, gerraurrekoen eta hirurogeita hamarreko hamarkadakoen haritik.” (*Elorri*, bigarren argitalpenaren hitz-aurretik).

Elorri-ren kasuan, badu oraindik gibelatzapen poxi bat : lehen argitalpena 1962-an egin zen eta, bigarrenrentzat prestatzen duen aintzin-solas hori 1989-an agertzen da. Bainan, *Uda batez Madrilen* edo *Bertso-paper printzatuak* liburuentzat, ez du atzerapen izpirik eta, bizkitartean, obra sortu berriari toki bat eman behar dio diakronian. Hots, orainaren historialaria bilakatzen da eta, nolabait errateko, apustu bat egiten du jakin gabe liburuak zer harrera mota ukanen duen kritikaren aldetik baita ere irakurleagoaren aldetik:

Bainan azken urteotan berriro ere zailtasun bereziak ditugu zaharagook hiztegi berrira jar gaitezen. Bai Joseba Sarrionaindiaren kasuan, Joxe Austinenean, aldaketa bat nabaria da lexikon alorrean. Susmo dugu poesia modernoago eta unibertsalago baten lehia ote dabilen azpian. (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

Eta badirudi, eskerrak bihurtzen dizkiola aurkezten duen poetari, ausnarketa baten egiteko parada eman diolako :

Guri Joxe Austinek jokabide mordo bat eskaini digu. (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

b. Irakurketa “sinpatikoa”

Apustuen egiteko orduan, berriro, “lehen irakurlearen” tokitik mintzatzen da, hots, bere ikuspondu pertsonaletik. Eta erantzun baino galdera gehia-

go heldu zaio obra berriaren aurrean. Orduan, irakurle "experimental" gisa, ikuspondu "berri" batetik norabide batzu bilatzen ditu, bere buruarentzat ari balitz bezala:

Euskal poesiaren aldetik begiratuta, berriz, liburu honek bide egokia eskain diezaguke gaurko poesigintzaren inguruko zenbait arazo planteia ditzagun.

Bainan, irakurketa hortan maila "materiala" batean mugatuz, ez da poetaren irudimenean sartzen. Edo bederen ez du haren irudimena interpretatu nahi, behin betiko erabaki kritikoa emanetz. Mundu sortuberriaren aintzinean gelditzen da ; sartzeak bilatzen eta proposatzen ditu bainan atarian gelditzen da. Ez du J.P. Richard-ek¹⁵ edo J. Starobinski-k¹⁶ egiten dutena egin nahi, hots, ez du poetaren baititik, haren konzientziaren barrutik mintzatu nahi.

Hein batetik hara, J.M. Lekuona-k aldebat uzten ditu aztertzailearen tresnak eta beste gisako harreman bat bilatzen du ongi ezagutzen duen poetarekin :

Ortzadar baten pare.

Uraren eraginak bultzaturik eginak dira liburu honen lehen partea eta azken partea. Urarekin hasten da eta urarekin bukatzen, sustraiak uretan dituela. (...)

Azken poeman berriro ere ura. Ortzadarra Madrileko zerutik itsasgorriaren altzora bihurtzen da, bere jatorrizko su hartara. Eta berriro ere poema bila dabil egilea gure artean, zerura begira. (*Uda batez Madrilen* liburuaren hitz-aurretik).

B. Gandiagaren irudimenaren atarian tresnak utuzirik, poesiaren bitartez du lotura egiten bere adixkidearekin, biak, azterketatik haraindiko eremuan, elkarrekin partekatzen duten mundu poetikoan "sinpatian" balira bezala.

Konklusio gisa : Irakurle idealaren lan urria

Bukatzeko erran daiteke "Lehen irakurle"-aren eginbidea ongi bete duela J.M. Lekuonak, ausartzia kritikoa eta zehaztasun intelektuala ongi orekatuz. Ez da dudarik, aurkeztu zituen autoreek preziatu zutela haren ekarpena.

¹⁵ J.P. Richard, *Poésie et profondeur*, arg. Seuil, 1955 – 1976 ; *L'Univers imaginaire de Mallarmé*, arg. Seuil, 1961.

¹⁶ J. Starobinski, *La mélancolie au miroir* (« Trois lectures de Baudelaire »), arg. Julliard, 1989.

Adixkidetasun markaz gain, laguntza teoriko handia eman zien, norberak bere lanari buruz nekez egin zezakeen aztertze eta ebaluatze lana haien orde eginenez. Bestalde, euskal literaturaren jarraipenean baita ere ingurugiro garaikidean jartzeko parada eman zien, hortan ere, bat bederak bere obrarentzat lortezina duen ikuspegi orokorra eskainiz. Hots, idazle guziek nahi luketen “irakurle ideala” izan da J. M. Lekuona bere hitz-aurre lanetan.